

EUSKARAREN PRESENTZIA DUTEN ERROTULUETARAKO DIRU LAGUNTZAK 2016

DIRU-LAGUNTZA HAUEN XEDEA:

Diru-laguntza hauen xedea zera da, Leioako establezimendu komertzialetako, ostalaritzakoetako eta elkarteetako errotulazioan euskaren presentzia sustatzea.

EKINTZAren AZALPENA

Diruz lagunduko dira errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa.

Euskaraz idazten direnei gastu osoaren %50 emango zaie diru laguntza, 350 € gehienezkoa delarik. Elebidun idazten direnei gastu osoaren %30 emango zaie, gehienezkoa 200 € delarik.

AURKEZTU BEHARREKOA

- Betetako eskabide ofiziala Euskara Zerbitzuko bulegoan.

Kultur Leioa. Euskara Zerbitzua

Jose Ramon Aketxe, 11

Tfnoa: 946 072 576

Posta elektronikoa: euskarazerbitzua@leioa.net

- Fakturaren fotokopia.
- IFK-ren kopia.
- Errotuluaren argazkia, paperean edo euskarri digitalean.
- Bankuko datuen fitxa behar bezala osaturik.

BALDINTZAK

- Toponimo edota izen-abizenek bakarrik osatutako izenek ez dute diru laguntzetarako eskubiderik izango.
- Oker gramatikalik, ortografikorik edo, oro har, txarto idatzita dauden kartel eta errotuluei ez zaie diru laguntzarik emango.

HIZKUNTZA AHOLOKULARITZA

Inolako okerrik ez egoteko, Euskara Zerbitzuak hizkuntza aholkularitza lana egingo du eskatzailea izan behar duenak horrela eskatzen dionean. Beraz, errotulua egiteko agindua eman baino lehen komeni da Euskara Zerbitzutik pasatzea teknikariek hizkuntza mailako laguntza hori eman dezaten.

AURREKONTUKO ZUZKIDURA.

Euskara Zerbitzuak 2016ko ekitaldian 33501/4810200 Errotuluak euskaratzeko diru-laguntzak izeneko partidatik 2.000 € erabiliko ditu laguntza hauek emateko.

EMAKIDA.

Euskara Zerbitzuak balorazio txostena egingo du, Euskararen Erakundearen Lehendakariari igorriko diona. Txosten hori ikusita Lehendakariak ebazpena sinatuko du diru laguntza onesteko edo ukatzeko.

Diru-laguntzak, eskatze hurrenkerari jarraituz ordainduko dira, aurrekontu-partida dagoen bitartean.

AZKEN XEDAPENAK

Eskabideak aurkezteko epea 2016ko abenduaren 31n bukatuko da.

Araudi hau 2016ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean.

Diru-laguntza honen jasotzaileak ezin du beste diru-laguntzarik jaso kontzeptu berdinean.